

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak
Si tú cambias, el mundo cambia

XVI. KONGRESUA:
LANGILERIA
ANTOLATU,
GIZARTEA ERALDATU
> 4. ORR

SARE SOZIAL
PRIBATUEN
ATZAPARRETAN
GALDUTA
>10. ORR

IGNACIO RAMONET:
“REINO UNIDO,
FRANCIA Y
ALEMANIA SON
POTENCIAS
SECUNDARIAS EN EL
MUNDO DE HOY”
> 36. ORR

**“Gure belaunaldian
autokritika falta
ikaragarria dago”**

Roberto Moso,
kazetaria eta musikaria



4

ERREPORTAJEA

**ELAren XVI. Kongresua:
“Langileria antolatu,
gizartea eraldatu”**



10

GAIA


**Sare sozial
pribatuen
atzaparretan
galduta**



28

ELKARRIZKETA

**Roberto Moso: “Gure
belaunaldian autokritika
falta ikaragarria dago”**



36

ELKARRIZKETA

**Ignacio Ramonet:
“Reino Unido,
Francia y Alemania
son potencias
secundarias en el
mundo de hoy”**



ALDAko ahotsa | Editoriala**03**

ALDAko Erreportajea| ELAren XVI.
Kongresua: ‘Langileria antolatu,
gizartea eraldatu’**04**

ALDAko Lagunak | Xavier Antich.**24**

ALDAko Lagunak | Roser Espelt
Alba.....**26**

ALDAko Elkarrizketa|
Roberto Moso, kazetaria eta
musikaria..... **29**

ALDAko Entrevista| Ignacio
Ramonet.....**36**

ALDAko Hiztegia..... **46**

KulturALDA.....**47**

PostALDA**48**

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Nagore Uriarte eta Iván Giménez.

Koordinatzailea: Gorka Quevedo.

Lantaldea: Nagore Uriarte, Gorka Quevedo, Iván Giménez, Leire Regadas, Davide Cabaleiro, Gabriel Zeberio. Lander Zabaleta

Argitaratzailea: ELA, Euskal Sindikatua.

Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

www.ela.eus • alda@ela.eus

Lege gordailua: BI-195-1998



Langileria antolatu, gizartearen eraldatu

ELAK ekainaren 2 eta 3an Bilboko Euskalduna Jauregian bere 16. Kongresua egingo du, *Langileria antolatu, gizartearen eraldatu* lelopean. Leloak berak adierazten duen bezala, helburua langile klasea eragile aktibo eta eraldatzaile gisa antolatzea da, gizarte justuago bat lortzeko. Izan ere, *Más sindicato, más vida* da ELAK aukeratu duen leloaren bigarren zatia. Gainera, ELAK probestuko du 1976ko Eibarko kongresuan onartutako printzipioak eguneratzeko.

2021eko kongresuan ELAK lan sakona egin zuen ildo estrategiko sendo batzuk identifikatu eta zehazteko: prekaritateari aurre egitea, militantzia landu eta sendotzea, lan zentroak sindikalizatzea, genero ekitaterako antolakuntza eraldatzea eta lan planifikatua egituratzea. Lau urte hauetan ELAK aurrerapauso nabariak eman ditu, baina bide hori ez da inoiz amaitzen. Beraz, ildo estrategiko berberei eutsiko die ELAK.



LANGILERIA ANTOLATU, GIZARTEAREN ERALDATU

MÁS SINDICATO, MÁS VIDA

Gauzak horrela, sindikalismo feminista eraikitze bidean, emakumeek pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko barrura eta kanpora begirako planak garatzea planteatzen da, eta genero begirada sindikatuaren egiteko guztietan txertatzea, emakumeen parte hartzeari eta ardura hartzeari leku egiteko. Hortik harago, ELAK maila guztietan parte hartze esparruak sortu eta sendotu nahi ditu, pertsonak ideologiko, teknikoki eta organizazionalki trebatu, ardurak eman eta ahalduzko. Militantziaren ekintza eremua zabaldu nahi du

sindikatuak: enpresetan, noski, baina baita esparru sozial eta politikoetara hedatuz ere.

Lan esparruan, ELAK azpimarratu du inoiz baino aberastasun handiagoa sortzen ari dela langile klasea. Urtez urte enpresek irabaziak handitzen dituzte, baina aberastasunaren banaketan lan errentek pisua galtzen dute eta desberdintasunak eta pobrezia hedatzen ari dira. Hori iraultzeko, KPtik gorako soldata igoerak eta lanaldi murrizketaren alde borrokatzen jarraituko du ELAK. Horretarako, ezinbestekoa izango dira langileen parte hartzea, antolakuntza, mobilizazioak eta grebak.

Hori guztia (eta beste hobekuntza asko) lortzeko, Kongresuak datozen lau urteetarako lerro nagusiak onartu behar ditu, bertan egongo diren 736 ordezkarien babesarekin. Ekainaren 2an eta 3an, elkar ikusiko dugu, ELA indartsuago ateratzeko asmoarekin! **A**

ELA celebrará el 2 y 3 de junio su Congreso bajo el lema “Langileria antolatu, gizartearen eraldatu”. Como indica el lema, el objetivo es organizar a la clase trabajadora como un agente activo y transformador para lograr una sociedad más justa. De hecho, “Más sindicato, más vida” es la segunda parte del lema.



Kongresura, sasoi betean

ELAk bere XVI Kongresua egingo du ekainaren 2an eta 3an Bilboko Euskalduna Jauregian

ELAk hitzordu garrantzitsua du ekainaren 2an eta 3an. Izan ere, egun horietan sindikatuak bere XVI. Kongresua egingo du Bilboko Euskalduna Jauregian, *Langileria antolatuta, gizartea eraldatu* lelopean.

ELA sasoi betean heltzen da Kongresura. Datuei erreparatu besterik ez dago: ELAk 104.159 afiliatu ditu, aurreko kongresuan baino 3.234 afiliatu gehiago. Afiliazioa funtsezkoa da ELAren zeregin sindikala eta izaera bera

ulertzeko, indar militante horrek ahalbidetzen baitu sindikatuaren urteko diru-sarreren % 92 baliabide propioetatik etortzea.

ELAren izaera islatzen duten beste datu esanguratsuak ere badaude, betiere afiliazioari dagokionez: sindikatu osoko emakumeen ehunekoa % 46tik % 47,7ra igaro da lau urtean, eta igoera hori zerbitzu-sektoreetan gertatu da batez ere, hau da, sektore prekarizatuenetan. Horrek erakusten du ELA oso

presente dagoela lan sindikala beharrezkoa den lantokietan, langileak babesik gabe dauden lekuetan.

Afiliazioaren datu onak sindikatuaren egoera ekonomikoan isla dira. eta erresistentzia-kutxaren indarra hau guztiaren emaitza da. ELAk greban dauden pertsonen 1.450 euroko kalte-ordaina ematen die hilean (ohiko gatazketan). 2024an, esaterako, 5.653 afiliatuk jaso zuten erresistentzia-kutxatik



kalte-ordaina. Horrek azaltzen du ELAk lan-baldintzak defendatzeko duen gaitasuna, greba oinarriko elementua baita konfrontazioko negoziazio kolektiborako, eta ez enpresen menpekoa.

Ildo horretan, azpimarratu behar da ELAk hileko kalte-ordain hori % 25 handitu duela azken lau urteetan, erresistentzia-kutxaren osasun onaren erakusgarri, afiliatu bakoitzaren kuotaren % 25 bideratzen baita kutxa horretara.

ELAk Euskal Herriko langile klasearen erreferente izaten jarraitu nahi du. Horregatik sindikatuak Kongresua baliatu nahi du bere nortasun ezaugarriak eta konfrontazioko eredu sindikal autonomoa indartzeko. ELAko zaharberitutako printzipioek dioten bezala:

“Elkarrekin, sindikatua eginez, oraina eraldatzeko eta etorkizunerako bideak urratzeko gauza izango gara. Euskal Herri burujabe, feminista, euskaldun, sozialista, anitz eta solidarioaren alde lan egiteko helburua ez ezik, itxaropenerako arrazoia eta konpromiso zein mobilizazio kolektiborako etengabeko gonbitea ere badugu. Gora ELA!” 

PROPUESTA DE NUEVO COMITÉ EJECUTIVO

Mitzel Lakuntza Vicario (Iruña, 1976) Secretario General

Amaia Muñoa Capron-Manieux (Aix-En-Provence, 1974) Secretaria General adjunta. Internacional

Ane Bilbao Alzelai (Gasteiz, 1983) Servicios Jurídicos

Luis Fernández Centeno (Iruña, 1973) Sindicalización, Militancia, Acciones Confederales

Leire Gallego Lopez de Goikoetxea (Gasteiz, 1989) Acción Social, Políticas de Migración, Políticas de Igualdad de Género

Iván Giménez Gil (Iruña, 1976) Comunicación

Pello Igeregi Santamaria (Sopela, 1981) Negociación Colectiva. Salud Laboral. Euskara

Alazne Mantxola Mintegi (Legazpi, 1988) Tesorería

Aitor Murgia Esteve (Berango, 1988) Políticas Sociales. Gabinete de Estudios. Medioambiente

Unai Oñederra Egaña (Donostia, 1973) Formación. Iparralde. Estrategia Soberanista

Leire Txakartegi Iramategi (Ondarru, 1973) Organización

Ane Miren Zelaia Arieta-Araunabeña (Durango, 1989) Afiliación, Elecciones Sindicales, Sistema de Gestión y Plan de Equidad de Género.

ELA cambia... para seguir siendo **ELA**

El sindicato reonvará sus principios (fijos en 1976) con una Declaración que se aprobará el 3 de junio en el XVI Congreso Confederal



ELA ha trabajado durante el último año y medio en la actualización de su Declaración de Principios, aprobada originalmente en 1976. Aquella declaración fue en su momento una revisión del acta fundacional y los primeros estatutos del sindicato (1911), y estableció sus rasgos esenciales: un sindicato vasco, abertzale, socialista, independiente y financiado por su afiliación.

Sin embargo, aquellos principios reflejaban su contexto histórico, tanto en su contenido como en su lenguaje. En las casi cinco décadas transcurridas, ELA ha experimentado una evolución profunda, y sus principios deben reflejar esa transformación.

La nueva Declaración sintetiza de manera clara y accesible los valores, objetivos y modelo sindical que ELA ha consolidado a lo largo de los años. Recoge luchas feministas, ecologistas,

internacionalistas y de clase, así como la apuesta por una Euskal Herria soberana y euskaldun. Se trata de un texto que proyecta una visión a largo plazo, que actualiza y refuerza la identidad colectiva de ELA. En definitiva, estos nuevos principios explican qué es ELA hoy, qué defiende y hacia dónde quiere ir, con el objetivo de fortalecer su identidad y compartir sus valores tanto dentro como fuera de la organización.

La propuesta será presentada y sometida a votación el próximo 3 de junio en el XVI Congreso Confederal, en un acto especial que incluirá la participación de diversas personas que han militado durante estos 50 años en ELA. Su aportación, como la de decenas de miles de personas afiliadas, será homenajeada en este acto, que quiere ser un momento emotivo y central en el transcurso del Congreso. **A**



Extractos de la nueva Declaración de Principios

Printzipioak Euskal Herri burujabe, feminista, euskaldun, sozialista, anitz eta solidario baten alde lan egiteko gonbidapena dira

“ELA klase-sindikatu abertzalea da. Bere xedea da euskal langile-klasea batu, antolatu eta defendatzea, haren eskubide, helburu eta beharrak lehenetsiz”. ELAk aurre egiten dio pertsonak eta herriak esplotatzen dituen eta gizateriaren beharrezko funtsezkoenei entzungor egiten dien sistema ekonomiko eta sozial bati, kapitalismoari”.

“En este sistema heteropatriarcal, que oprime y explota doblemente a las mujeres y a quienes no encajan en las normas impuestas, ELA sostiene que la verdadera defensa de la clase trabajadora exige, de manera irrenunciable, ser un sindicato feminista”.


“ELArentzat estrategikoa da ere aberastasuna birbanatzeko benetako mekanismoen alde borrokatzea, baita justizia eta ekitatea sustatzeko zerbitzu eta gizarte-babeseko sistemak bermatzearen alde, oinarritzko alorretan, hala nola etxebizitza, osasuna, hezkuntza, elikadura, ura, zaintza, energia, garraioa eta komunikazioa. Hori lortzeko sindikatuak lehenetsiko ditu ongizate-egitura publikoak eta kolektiboki kudeatutako beste alternatiba batzuk, betiere herri klaseen zerbitzura”.

“Aldarrikatzen dugu migratzea oinarritzko giza-eskubide bat dela eta gaitzetsi egiten dugu eskubide horren jabe den edonor kriminalizatzen edo baztertzen duen sistema oro. Klase-sindikatura izateak esan nahi du ere abegikorra izatea, langileriaren kideen aniztasuna aitortzea, eta protagonismoa ematea migratzaileei erakundearen maila guztietan”.

“ELA es un sindicato totalmente independiente. Esta independencia tiene por objeto garantizar su capacidad para confrontar las injusticias laborales y sociales. Esta autonomía incluye su definición ideológica, estratégica y organizativa. Es igualmente independiente de cualquier partido político, entidad o institución ajena al sindicato. Y para que esa independencia sea efectiva, ELA sostiene un modelo económico basado en las aportaciones de sus afiliados y afiliadas, necesario para enfrentar las presiones del capital, de las empresas y de las instituciones políticas”.

“ELAk Errepublika izango den Euskal Herri burujabe baten alde egingo du, non gaur banatuta dauden lurraldeek bat egiteko aukera izango duten, herritarrek adierazitako borondate demokratikoa aintzat hartuz. ELAk Euskal Herri euskalduna du helburu, eta lanean ari da herritarrak zein instituzioak euskalduntzeko, euskara herrialdeko ohiko hizkuntza bihurtu arte. Ikusmolde honekin bat, euskara sindikatuko hizkuntza nagusia da ere”.

“ELA defiende la autonomía colectiva como el derecho de las sociedades a autoorganizarse y a tomar decisiones sobre los asuntos que les afectan, sin injerencias externas, ya sean de gobiernos o de entidades privadas. Basándose en este principio, el sindicato reivindica el derecho de las organizaciones sociales y sindicales a influir en la esfera pública y, en especial, en las políticas que afectan directamente a las clases populares”.



Sare sozial pribatuen atzaparretan galduta

Azken urteetan internetek hartu duen bilakaerak ezinbestekoa egin du gaiaren inguruko hausnarketa sakona. Internet aldatzea posible al da?

TESTUA: LEIRE REGADAS

07:00. Gosaltzen duzun bitartean Twitter irekitzen duzu azken albisteen berri izateko. Horren ordez, Daniel Esteve Desokupako buruaren azken polemika, euskararen aurkako enegarren twitt-a edo palestinar genozidioaren ondoren eraiki nahi duten *Trump Gaza* luxuzko resortaren bideo biralarekin egiten duzu topo. Ezin izan duzu saihestu, eta ikusi berri duzuna partekatu duzu lagunekin.

Arratsaldean Instagram edo TikTok irekitzen dituzu, entretenitzeko. Emakume baten profilarekin egiten duzu topo, bere mutilarentzat sukaldatzen agertzen da bideo guztietan. *Scroll*. Llados delako baten beste reel bat, arrakastatsua izateari buruzko katedra ematen, zortzi orduz lo egitea "fucking pobreen gauza" dela esanez, bostetan esnatu behar dela bizitzan norbait izateko. *Scroll*. Ordu jakin

batean supermerkatu batera ligatzera joateko moda, gurditxoan anana bat jarrita. *Scroll*. *Scroll*. *Scroll*.

Zergatik dira iristen zaizkigun edukiak eta berriak gero eta hutsalagoak, erridikuluagoak edo probokatzailagoak? Pantailaren atzean algoritmo batzuk ezkututzen dira, emozionalki eta erraietatik dei egiten duen eduki mota hori masiboki irits dadin diseinatuak. Erantzun eta erreakzio gehien sortzen dituen hori lehenesten dute algoritmoek. Izan ere, horren arabera izango dira plataforma pribatuen irabaziak.

Sare sozialetan gero eta garrantzia gutxiago dute jarraitzen dituzun pertsonen argitalpenek, algoritmoa arduratuko baita nahi duena erakustez. **Carles Senso** kazetariak gakoak eman ditu *Fascismo Mainstream: Periodismo, conspiraciones, algoritmos y*

bots al servicio de la extrema derecha liburuan: "Plataforma teknologikoak erabat obsesionatuta daude *engagement*arekin, interakzioarekin. Gizarte bat zenbat eta polarizatuago egon, orduan eta interakzio eta eztabaida handiagoa sortzen da sare sozialetan, eta, beraz, orduan eta onura ekonomiko handiagoa".

Biralaren diktadura

Sumintzen garenean, gure tentsioa areagotzen da eta arrazionalki pentsatzeko gaitasuna murrizten da. Erantzuteko beharra ia saihestezina da. Horri lotuta, sare sozial komertzialek gero eta formatu azkarragoak bultzatzen dituzte, frenetikoagoak, datu monetizagarriak sortzen dituztenak eta pentsamendu konplexuarekin hain bateragarriak ez direnak. Ekaitz perfektua egungo gizartearen iritziak polarizatzeko eta erradikalizatzeko.



“Baliabide digital ugariko ekosistema baten aurrean gaude, algoritmoen eta saretarako gure sarbidearen alderdi bakoitza kontrolatzen duten enpresa handien mende. Gure gailu mugikorren gehiegizko esposizioak euskarri ezin hobea eskaintzen die informazio egokiena berehala eta azkar kontsumitzeko moduan helarazteko”; horrela azaltzen du egoera ‘Desinformazioaren aroa: joera autoritario baterantz’ Novact erakundearen txostenak.

Sareen funtzionamendua ondo ulertu dute eduki sortzaileek, eta estrategia horretara egokitzen dituzte argitalpenak, hedapen handiagoa lortzeko asmoz. Hedabideak ere sartu dira gurpil zoroan, eta kazetaritzako edukiaren kalitatean eragin zuzena izan du joera honek: *fake news*, *clickbait*, albiste sentsazionalistak... Kazetaritzaren krisiak zorrotzasun, sinesgarritasun eta kontrabotererik eza ekarri du informazioaren alorrean eta honek arazoa areagotu besterik ez du egin: egia eta gezurraren arteko muga geroz eta lausoagoa da, informazioa eta propagandaren artekoa bezainbeste.

Ekaitz Cancela kazetariaren eta *Utopías digitales. Imaginar el fin del capitalismo* (Utopia digitalak. Kapitalismoaren amaiera imajinatu) (Verso libros. 2023) liburuaren egilearen arabera, “biralitatearen diktadura inposatu da: klik gehien sortzen duena egiazat hartzen da. Estrategia kontrairaultzaile luze baten zutabea da, nahasmen kolektiboari eusten diona eta gero eta baldintza material gogorragoak onartzera bultzatzen gaituena”.

Fake news, gorrotoa eta ultraeskuina

Elon Muskek 44.000 milioi dolarren truke erosi zuen Twitter 2022ko urrian. Hilabete gutxi batzuetan nahierara txikitu

En el tecnofeudalismo las grandes corporaciones tecnológicas actúan como “señores feudales” controlando plataformas digitales y datos. Las personas usuarias, por su parte, se convierten en “siervas” que crean valor sin recibir una compensación justa por su trabajo.

zuen sarea: zuzendariak eta plantillaren % 80 kaleratu zituen (kasualitatez, gorroto mezuak eta jazarpena murrizten zituzten departamentuak ia erabat suntsitu zituen), X izena jarri zion, Premium erabiltzaileentzako ordainketa sistema bat garatu zuen abantaila batzuekin, eta, batez ere, megafono indartsua sortu zuen eskuin muturreko jarraitzaileek eta erakundeek hedatutako gorroto mezuetarako. Dagoeneko han zeuden arren, Musken etorrerak eta algoritmoen aldaketak mesede egin zien nabarmen. Era berean, Mark Zuckerberg Metaren sortzaile eta CEOak urtarrilean iragarri zuen: “Fact-checkerrak (eduki-egiaztatzaileak) ezabatuko ditugu X-ren antzeko ohar komunitarioekin ordezkatzeko, Ameriketako Estatu Batuetan hasita”.

Algoritmoek eta informazioen egiaztapen ezak koktel ezin hobea sortzen dute gorroto diskurtsoak eta eskuin muturreko mezuak ugaritzeko. Ez da kasualitatea, kausalitatea baizik, mota honetako edukiak izatea gehien biralizatzen direnak. Arrazoi ideologikoengatik sare sozialetan erregistratutako gorroto delituak % 71 hazi ziren 2024an, espainiar Gobernuaren datuen arabera. Benetako mehatxua gizartearentzat eta, batez ere, emakumeentzat, biktima gehienak emakumeak direlako, Europar Batasunaren arabera. Misoginia da interneten gorrotoa hedatzeko modu ohikoena plataforma guztietan.

Incel fenomenoak –*nahigabeko zelibeen* laburdura– Interneteko bazterretako nitxo izateari utzi

dio, eta mehatxu erreal eta gero eta handiagoa bihurtu da. Harreman sentimental edo sexualik ez dituzten gizonen arteko lasaitze-foro gisa hasi zena kasu askotan mugimendu global erradikalizatu baterantz eboluzionatu du, emakumeen aurkako gorrotoz, antifeminismoz eta eskuin muturraren diskurtsoz bete. Manosfera osatzen duten Reddit, 4chan eta bestelako foroetan gorrotoa baliozkotzen duen burbuila bat sortzen da, non muturreko diskurtsoek indarra irabazten duten eta edozein ikuspegi alternatibo baztertzen den.

“Incel guztiek ez dute erahiltzen, baina denek parte hartzen dute interneteko erasoaldi matxistetan. la beti, koordinatuta, taldean eta anonimotasunean”, salatu du **Marta G. Franco** kazetaria eta *Las redes son nuestras* (Sareak gureak dira, Consonni. 2024) liburuaren egileak. “Plataformek ikusi dute nola bete diren gorrotoz eta ez dute neurririk hartu hori geldiarazteko. Erreakzioa beti berdina da: ez da geldiarazten onurak ematen ari dizuna”, gaineratu du.

Gezurak, gorrotoa eta kontu faltsuen arteko triangeluak osatzen du ultraeskuinaren komunikazio estrategia. Interneteko trafikoaren % 60 baino ez da gizatiarra zentzu hertsian. Gainerakoa faltsua da: botak, klik etxaldeak, existitzen ez diren zerbitzuen iragarkiak, zuzeneko iruzurrak, Adimen Artifizial bidezko erabiltzaile faltsuak... Milioika kontu faltsu edo bot erosi ditu ultraeskuinak, eta mezu berberak behin eta berriro



argitaratzeko eta hedatzeko programatuta daude. Diskurtsoak anplifikatzeko edo albiste faltsuak azkarrago zabaltzeko erabiltzen dira.

Ildo beretik, Marta G. Franco kazetariaren arabera, "sare sozialak gudu-zelai izugarria bihurtu dira, eta trollen armadak antolatzen dira beren ikuspegiak nagusitzeko, non mertzenario gehiagori ordaintzen dienak irabaz dezakeen, eta, nolana ere, non dena azkarregi gertatzen den". Horrela, "oinarrizko aktibismo politikorako (trollak eta influencer-ak finantzatu ezin dituenak) leku izateari utzi diote 2.0 sare sozialek".

Teknofeudalismoa: Big Techn agindua

Imajinatzeko zaila den arren, garai batean Internet ez zegoen korporazio handi gutxi batzuen

eskuetan. Finantzazio publikoa zuen sare gisa sortu zen, eta, pixkanaka, zerbitzuak pribatizatzen joan ziren inolako kontrolirik gabe. Egun, pastela *Big Tech* izeneko bost enpresa handien artean banatzen dute: Alphabet (Google), Amazon, Apple, Meta (Facebook) eta Microsoft. Era berean, beste enpresa batzuen jabeak dira, hala nola Youtube, Alexa, Instagram, Whatsapp, Twitch, etab. Testuinguru honetan, ia ezinezkoa da monopolio hauek nagusi ez diren industria teknologiko bat aurkitzea. Oso zaila zaigu, halaber, bere logikatik ihes egitea.

Baina, esan bezala, hori ez da beti horrela izan. "Gaur egun Internet deitzen dugunaren geruza teknikoa Silicon Valleyn diseinatu dela uste badugu ere, haren erabileren asmakuntza eta etengabeko berrikuntza lanketa globala izan da, gehienbat behetik (herritik)

sortutakoa eta AEBetako gizon zuri aberatsak apenas izan direnak protagonista", adierazi du Marta G. Franco kazetariak bere azken liburuan. Interneten memoria historikoa eraikitzeko ariketa egiten du bertan, mundu digitalaren jatorria ulertu eta egungo ereduaren aurrean alternatibak egon badaudela azalertzeko.

Izan ere, plataformek boterea badute, neurri handi batean guk geuk botere hori eman diegulako da. Deskarga bakoitzean, bilaketa sinple bakoitzean, like bakoitzean, gure datu pertsonalak oparitzen ari baikara. Googlen produktu bati buruzko bilaketa bat egiten badugu, oso ohikoa da segituan iragarki pertsonalizatuak jasotzea bilaketetan oinarritutako lehentasunen arabera.

Gure pribatutasuna saltzen dugu eta datu pertsonalak



gordetzeko eta kudeatzeko baimena ematen dugu, “doako” zerbitzu eta aplikazioak erabili ahal izatearen truke. Negozioa biribila da. Enpresek erabiltzaileen datuak ustiatzen dituzte irabaziak maximizatzeko, erabiltzaileek datu horien balioagatik konpentsaziorik jaso gabe. Dinamika honek eman zion izena teknofeudalismo terminoari. Tesi honen arabera, sistema kapitalistaren bilakaera da Silicon Valleyko *Big Tech* handiek eta haien CEOek zuzendutako “feudalismo berria”.

Datu pertsonalak, XXI.mendeko urrea

Kapitalismo tradizionala ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenean, enpresen arteko lehia eta kapital-metaketan oinarritzen zen. Hala ere, azken hamarkadetan, Google, Amazon, Meta (Facebook) eta Apple bezalako teknologia handiek jokoaren arauak birdefinitu dituzte. Enpresa horiek jada ez daude ekoizpen materialaren mende soilik; datuen kontrolean, azpiegitura digitalean eta milaka milioi pertsona konektatzen dituzten plataformetan metatzen dute boterea.

Yanis Varoufakis ekonomialari greziarrak *Tecnofeudalismo. Kapitalismoaren oinordeko isila* (2024) liburuan dio, korporazio teknologiko handiek “jaun feudal” gisa jokatzeko dutela, eta plataforma digitalak eta datuak kontrolatzen dituztela. Erabiltzaileak, berriz, balioa sortzen duten “morroi” bihurtzen dira, beren lanagatik bidezko konpentsaziorik jaso gabe.

Cédric Durand ekonomialariak gaineratu izan du feudalismo klasikoaren antzeko mendekotasuna sortzen duela teknofeudalismoak, non erabiltzaileak (morroiak) plataforma digitalen (jauntxoak) mende dauden eguneroko hainbat jardueratarako, komunikaziotik



Grace Hooper, AEB eta Europa konektatzeko Googleren kable transozeanikoaren instalazioa Sopelako hondartzan (2021)

eta kontsumotik hasi eta lana eta entretenimendura arte. Adierazi duenez, mendekotasun horrek kontrol sozial esanguratsua sortzen du, erabakiak eta portaerak algoritmoek eta politika korporatiboek moldatzen dituztelako.

Botere korporatiboaren aro berria azaltzeko balio dezakeen arren, kritikak ere jaso ditu teknofeudalismo terminoak. *Critique of Techno-Feudal Reason* saiakeran, **Evgeny Morozov** idazleak dio bizitzen ari garen aldiak izatez, kapitalista izaten jarraitzen duela. Ildo beretik, Ekaitz Cancela kazetariaren arabera, “Yanis

Varoufakisek eta beste batzuek gaia planteatu duten bezala, Donald Trumpek eta Elon Muskek sustatutako esparru libertarianoa indartu egiten du. Silicon Valley salgaien metaketaren logikatik bereizi nahi da, eta, garrantzitsua da ulertzea bi prozesuek, ekonomikoak eta politikoak, elkarri lotuta jarduten dutela”.

Historia errepikatzen da: Handiki alemaniarrek Hitler finantzatu zuten bezalaxe, estatubatuarrek Trump finantzatu dute, Elon Musk, historiako gizonik aberatsena eskuineko eskua izanda (orain gutxi arte, behintzat). Enpresa teknologiko handiek, guk

oparitutako datuei esker, erosten den horretan eragiteko ahalmena izan ez ezik, politikan eragiteko boterea ere badute: informazioa kontrolatzeko eta iritzi publikoa manipulatzeko boterea, hain zuzen, eta hori bada benetako mehatxua.

Internet aldatzea posible al da?

"Internet da lan eta etxebizitza baldintzak prekarizatzen ari diren aplikazioen jatorria. Kenyako langileek sareek erakutsiko dizkiguten edukiak aukeratzeko dituzte orduko 2 dolar baino gutxiagoren truke. Sareen ondorioz, buruak birrintzen eta kontzentratzeko gaitasuna murrizten ari zaizkigu. Gure antsietatearen iturrietako bat da. Energia baliabide ugari kontsumitzen du: ChatGTPk Espainiako estatuan urtebetean 170 etxek kontsumitzen duten elektrizitate kopuru bera kontsumitzen du egun batean", zerrendatzen du Marta G. Franco kazetariak 'Sareak gureak dira' lanean. "Teknologia digital kapitalistaren egungo ereduak zoritxar eta bidegabekeria amaigabeak dakarzkigu. Asko dugu irabazteko Internet konpontzea lortzen badugu, edo beste bat sortzen badugu", dio.

Mundu digitala, askotan, mota guztietako distopietarako inspirazioa da, zientzia fikzio apokaliptikoa eta beldurraren asalduraren epizentroa. Baina, ez al dago alternatibarik? Ez al dago utopia posiblerik? "Kapitalismoak modu erabat irrazionalen funtzionatzen du: alienatzen gaituzten, deprimitzen gaituzten eta gure txarra ateratzen duten sare sozialak erabiltzen ditugu, alternatibarik ez dagoelaren aitzakia faltsuarekin. Berritio diot: errealitate hori deskodetu eta egitura juridiko eta instituzional berriak birprogramatu behar ditugu, izaki aske gisa erlazionatu ahal izateko", uste du Ekaitz

Bot: Robot hitzaren laburdura. Interneten zeregin errepikakorrak egiten dituen programa bat da. Adibidez: sare sozialetan edukiak argitaratzea pertsona bat balitz bezala.

Troll: Sare sozialetan eztabaidak pizteko eta beste erabiltzaile batzuen arteko liskarra sustatzeko, tonu oldarkorren aritzen diren pertsonak.

Cripto-bro: Sare sozialetan ohikoa den profil mota bat da: gizon gaztea, kripto monetak erabiltzen dituen inbertitzeko eta, denbora gutxi horretan daraman arren, esperientzia eta ezagutza nahikoa duela uste duena inbertsio mota horietan besteei aholkuak emateko. Finantza propaganda hedatzeaz gain, emakumeen eta feminismoaren aurkako mezuak zabaltzen dituzte.

Big Tech: Munduko enpresa teknologiko handienak, merkatua kontrolatzen dutenak: Apple, Microsoft, META, Amazon, etab.

Chat GTP: Adimen Artifiziala erabiltzaile funtzionatzen duen chat bat da, elkarrizketa naturalak izateko trebatua dagoena.

Teknofeudalismoa: Sistema feudal historikoaren eta aro digitalaren testuinguruaren arteko analogia egiten duen kontzeptua.

Cancelak, *Utopia digitalak*. *Kapitalismoaren amaiera imajinatu* (Verso libros, 2023) liburuaren egileak. Baina alternatibak ez dira "etorkizun ideal baten proiektio hutsak", baizik eta "eguneroko praktikan existitzen dira", gaineratu du.

Plataforma digital propioak eraikitzea da proposamenetako bat. Komunitatean lan egitea eta jendeari informazio alternatiboa zabaldu ahal izatea du helburu, software librearen eta kode irekiko softwarearen (FOSS) defendatzaileek diseinatuta egongo litzatekena. Sare sozialen kasuan, Fedibertsoa deritzona jendeztatzeko dei egin dute erabiltzaileek. Mendearen lehen hamarkadaren amaieratik inposatu zen sare sozialen jabeen paradigma gainditu nahi da sare deszentralizatuen erabilera bultzatuz. Fedibertsoaren parte dira Mastodon (Twitterren alternatiba), Peertube (Youtuberaren alternatiba), Funkwhale (Spotifyren alternatiba)...etab.

Hala ere, gaur gaurkoz Fedibertsoaren sareek ezin dute zuzenean lehiatu Big Tech-en sareekin; ez behintzat logika berebera. Horregatik, sare horiek publiko zabalagoa lortu arte, alternatiba gisa mugatuak direnaren ustea zabaldua dago. Marta G. Francok argi dauka:

"Sareen egungo egoera eta etorkizuna zatikatuta egongo da oraindik. Sare sozial desberdinak erabiliko dituen jendea egongo da, eta ez da hain erraza izango, estrategia bakar batekin, sare sozial bakar bat nabarmenduz, gizartearen gehiengoarengana iristea. Sare sozialak ez dira hain hegemonikoak izango, eta zerikusi handiagoko izango dute komunitate eraikuntzarekin eta harreman trinkoagoekin, ez hain lurrunkorrekina ". Pentsamolde aldaketa eskatzen du, halaber, alternatiba eraikitzeak. Egunerokoan bezala, esparru digitala ere badelako kapitalismoaren aurkako borroka esparru. 🗳️



“Hay que abandonar la idea de que va a volver otra nueva red social mayoritaria”

Marta G. Franco, periodista, activista y habitante de internet desde 1999



Marta G. Franco es periodista, activista y se define como habitante de internet desde 1999. Frente al uso pasivo de plataformas privadas, defiende un espacio público y comunal en la red que ya existió, recuerda, en un ejercicio de memoria histórica. “Nos han robado internet” es la tesis que vertebra su reciente libro ‘Las redes son nuestras. Una historia popular de internet y un mapa para volver a habitarla’ (Consonni, 2024). No lo escribe desde la nostalgia, sino que pretende ser una herramienta para pasar a la acción y disputar el espacio digital lejos de privatizaciones.

»Hace unos años las redes sociales comerciales sirvieron para impulsar grandes movilizaciones (15M, Primavera Árabe...) y nacieron colectivos y plataformas que ponían en jaque el establishment, como Wikileaks o Anonymous. ¿Internet era

entonces más nuestra que ahora?

Internet fue nuestra mucho más al principio, cuando era una red con financiación pública. Las grandes redes sociales que seguimos conociendo ahora, Twitter, Facebook, etc., nunca fueron nuestras, siempre fueron empresas privadas. Pero en aquella época sí que nos permitían habitarlas de una manera diferente, con más autonomía y más agencia, y además cumplían con lo que nos prometían desde el principio: la posibilidad de entrar en contacto con muchas personas y que nuestros mensajes fueran recibidos por muchas personas diversas.

Hay algunos proyectos que surgieron entonces que siguen siendo ejemplo, como la Wikipedia, ¿no? Sigue siendo una de las web más vistas del mundo, una fuente de información universal y probablemente la más accesible,

plural, diversa que tenemos y que funciona bastante bien gracias a la colaboración de muchas personas que la editan.

»Todo ha cambiado de manera acelerada. ¿En qué se diferencia aquel momento del actual?

Al principio, las redes sociales eran minoritarias, la mayoría de la población se seguía informando a través de medios de comunicación tradicionales. Era un momento en que las redes sociales comerciales no tenían tantos mecanismos para ser llenadas de publicidad y de propaganda, porque las empresas y los partidos políticos no estaban profesionalizados en su uso. Era una cosa mucho más espontánea, en la que realmente había capacidad de llegar a mucha gente si te lo currabas, si tenías un poco de ingenio y de suerte. Cosa que ahora ya no puede ocurrir, porque hay tanta competencia que hace

falta, además de ingenio y suerte, mucho dinero. Ya no hay manera de crecer en redes sin invertir en publicidad o en generar contenidos que tengan capacidad de hacerse virales.

» **Los algoritmos mandan y deciden qué mostrar y qué no. No sé si tienes la sensación de que se esconde el contenido de movimientos y organizaciones sociales y cualquier atisbo de lucha.**

La realidad es que los algoritmos penalizan el contenido que consideran explícitamente político y que tiene intención de hacer activismo o incidir en el cambio social. Se penalizan palabras o símbolos que se entienden como directamente políticos. Por ejemplo, hablar de feminismo, de ecología o de Palestina. Pero tenemos que recordar que todo es político, y estamos recibiendo muchísimo contenido que tiene una función política. Por ejemplo, que se nos muestre contenido de *tradwives* o esposas tradicionales es política machista.

» **¿Quedarnos para hacer frente a estos discursos reaccionarios, de odio y a las fake news o abandonar las redes comerciales?**

Es imposible ponernos de acuerdo sobre cuándo hay que irse, pero sí podemos estar de acuerdo en que ese momento se está acercando. Es una noción común e indiscutible que hay una degradación de esos espacios. Ahora, creo que cada persona, cada colectivo, cada organización, tiene que evaluar hasta dónde le merece la pena estar o debe irse. En este debate necesitamos hacer una evaluación real, porque lo que solemos hacer es seguir utilizando por inercia espacios en los que estamos porque eso es lo que nos dicen que hay que

“Espazio digital publikoak eraikitzea edo gizarteak kudeatuko dituen espazioak sortzea lehentasun politikotzat hartu behar dugu”

hacer. Pero, realmente, cada vez compensa menos en términos incluso de visibilidad y de visitas. Cuando queremos encontrar información o relacionarnos con gente, nos llevamos, sin quererlo, un montón de contenido tóxico, o poco relevante, o muy banal. Lo que ocurre es que no pensamos en que hay alternativas.

» **Hablemos de Mastodon. Una red social libre que forma parte de otras alternativas del llamado Fediverso. ¿Realmente puede sustituir a X?**

En las redes sociales actuales, tú publicas un vídeo y tienes ahí un número que te dice que lo han visto 5.000 personas, o 10.000, o 20.000, depende de la suerte que tengas ese día. Pero esas personas, la mayoría, no habrán visto el vídeo completo o no te habrán prestado mucha atención y no habrás conseguido realmente tener una comunicación efectiva. Es verdad que si tienes mucho dinero y mucha capacidad de bombardear todos los días con contenido, al final puede que consigas difundir tus ideas y que esas personas las acaben comprando. Pero si solamente vas a conseguir impactar una vez, porque no tienes tanta capacidad, es mucho mejor buscar desde luego la comunicación más pausada y más plena.

Por ejemplo, se puede publicar un mensaje en un foro o en una lista

de correo, que sólo lo van a leer 80 personas, o 50, o menos. Esa gente realmente va a tomarse su tiempo, va a prestar atención a tu contenido y probablemente te vayan a responder solo dos o tres, frente a los 111 likes que podrías tener en Twitter. Pero son personas que te están escribiendo un mensaje y que están creando una comunicación mucho más significativa, con la que realmente estás consiguiendo crear un sentido común. Ese tipo de comunicación es la que se ve en el Fediverso.

» **¿Cómo crees que será el futuro de las redes sociales en los próximos años?**

Yo creo que para empezar hay que abandonar la idea de que va a volver a haber otra nueva red social mayoritaria. Eso no va a pasar. Igual que fue hace muchos años Facebook, luego pasó a Twitter, Instagram, TikTok... Ya no va a volver a haber otra red, otro nuevo juguete que todo el mundo use. Por un lado, porque ya hemos perdido la inocencia, hemos tenido experiencias tóxicas y no vamos a volver a lanzarnos a otra nueva. Creo que el estado actual y el futuro va a seguir estando fragmentado. Habrá gente utilizando distintas redes sociales y no va a ser tan fácil, con una sola estrategia, destacando una sola red social, llegar a la mayoría de la sociedad.

Esto ocurrirá también porque las grandes empresas tecnológicas

“Sare sozialak ez dira hain hegemonikoak izango, eta lotura handiagoa izango dute oinarrizko komunitate eraikuntzarekin eta harreman trinkoagoekin, aberatsagoekin eta ez hain lurrunkorrekin”



están ya en la industria de la Inteligencia Artificial y en otros modelos de negocio que tienen que ver también con entregar nuestros datos. En resumidas cuentas, las redes sociales serán menos hegemónicas y tendrán más que ver con construcciones de comunidad más de base y con relaciones más densas, más ricas y menos volátiles.

»Fascismo, reacción, fachatubers y manofera en general... acoso y violencia en línea, ansiedad, adicción... no es que el panorama invite a quedarse.

Desde luego. El problema es que para muchas personas estas pocas plataformas de las Big Tech son los únicos sitios donde pueden, de una manera razonablemente fácil, acceder a información, mantener

el contacto con su gente o, incluso en algunos casos, mantener su vida laboral. Necesitan las redes sociales para poder difundir sus contenidos o para poder acceder al trabajo, etcétera. Realmente es un privilegio poder estar desconectado, y poco a poco, además, lo que va a pasar es que en algunos ámbitos va a ser un privilegio no ser atendido por una Inteligencia Artificial.

»Hay quienes reniegan de internet, de las redes... Tú defiendes la importancia de disputar el ámbito digital.

Claro. Durante esta entrevista estamos hablando sobre las redes sociales y yo creo que es muy importante recordar que internet no son sólo las redes sociales, que obviamente se pueden regular o controlar, pero no dejan de ser

espacios privados que pertenecen a empresas. Lo que ocurre en Internet es, por así decirlo, que hay muchos centros comerciales y hay muy poco espacio público.

Nuestros gobiernos han desatendido su deber de construir las calles, parques, bibliotecas públicas en Internet. No tenemos espacio público digital, o muy poco. Y desde la sociedad civil hay algunos proyectos que tienen que ver con servidores autogestionados, pero son muy poquitos y algo muy pequeño comparado con los grandes centros comerciales que serían las plataformas de las Big Tech.

Tenemos que hacer esa reflexión y tomarnos como una prioridad política construir espacios digitales que sean públicos o que sean gestionados por la sociedad civil. **A**

“La táctica en las redes es clara: bombardearnos con mercancía estúpida y pesimista para que nada cambie”

Ekaitz Cancela, periodista e investigador de la UOC

